

## ASTEARTEA

2021/11/30  
9. urtea, 1.513. zenbakia  
107.6 fm

Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83 €

## Antton Pebeten oroimenezkoa hasiko da etzi

Elita mailako eskuz binakako txapelketako finala urtarrilaren 2an jokatuko dute // 7



Ostiraleko aurkezpen ekitaldian parte hartu zuten kide guztiak, oholtza gainean. IRATI SAIZAR

# Iribarrearekin abiatu dira Kilometroak

2022ko Kilometroak jaiaren aurkezpen ekitaldia egin zuten ostiralean Ibarako Belabieta kiroldegian; 'Iribarra' leloa eta logoa aurkeztu zituzten; materiala eskuragarri dago Kilometroetako dendan // 5

## Bolatokia estali eta padel pista eraikitzea hautatu dute

Amasa-Villabonak abian jarritako herri galdeketan 1.033 pertsonak hartu dute parte; 2022an gauzatuko dute aukeratu dutena // 4

«Heldu da merezi duen hizkuntza izatera»


HARITZ AZURMENDI  
FILOSOFOA

'Euskararen Historia Soziala Tolosaldean' ikerketa lanaren lehen zatia aurkeztuko du bihar, Tolosan // 2



## KARLOS LINAZASORO Esaten dugun argia

www.elkarargitaletxea.eus



POESIA  
elkar



JOSU ARTUTXA

## «Kanpotik datozenen begietan beste kolore bat hartu du euskarak»

### HARITZ AZURMENDI FILOSOFOA

'Euskararen Historia Soziala Tolosaldean' ikerketa lana ari da egiten Haritz Azurmendi albizturra; hiru zatitan banatu du, eta bihar aurkeztuko du lehena, Tolosan, 18:30ean

#### J. Artutxa Dorronsoro Albiztur

Galtzaundi Euskara Taldetik sustatutako proiektu batekin buru-belarri dabil Haritz Azurmendi (Albiztur, 1991). Euskararen historia soziala ari da ikeritzen, eta bihar (18:30) aurkeztuko du lehen zatia, Tolosako udaletxean. «Lastoa eta garia banandu beharra» izan duela aitortu du, «euskarekin lotura duen guztia» sartzen baita ikerketan. **Zer dela eta ari zara burutzen ikerketa? Non du jatorria?**

#### IRAGARKI LABURRAK

##### Salgai

**Txerriak.** Apotea, zerramak eta sei hilabete inguruko txerrikumeak salgai. Interesatuak deitu 607 668 603 (Joxe Kruz) telefono zenbakira.

**Sagarak.** Bidania-Goiatzen eskuz bildutako errezil sagarra salgai. Interesatuak deitu 652 7187 51 telefono zenbakira.

Galtzaundi Euskara Taldetik sortu zen ideia. Langabezian nengoela, gustatzen zitzaizkidan gaiak ikertzeko tartea hartzea pentsatu nuen. Proiektuaren zirriborro moduko bat idatzi eta Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztea erabaki genuen, diruz lagundu zezan. Lagundu zuen, eta orain beraz, horretan nabil lanean.

**1936az geroztik, eskualdean euskarak izan duen ibilbidea jasotzen du, ezta?**

Bai. 36ko gerraren aurretik, euskaltzaleen mugimendu indartsu bat zegoen Tolosaldean, baina gerrak hura eten zuen. Hortaz, saiakera bat egin dut, horren ondoren euskarari zein leku geratu zitzaion, zein posizio menperatu utzi zioten, zein estrategien bidez iraun duen eta nola berreskuratu den azaltzeko.

**Gerraz geroztik, zenbat aldatu da euskara Tolosaldean?**

Duela bi urte, Galtzaundik zabal-

du zuen albisteak zioenez, 100 urtean lehen aldiz, Tolosan euskara gehiago entzun zen gaztelania baino. Garai batean, Tolosako kaleetan ia ez zen euskararik entzuten, ez bazen inguruko berritarrak jaisten zirenean. Beraz, Tolosan behintzat, espazioa irabazi du etxetik kanpo.

Bestetik, gaiei dagokienez, euskara modernizatu egin dela iruditzen zait. Guri hain natural egiten zaigun batua oso egonkor dago orain, duela 50 urte ez bezala. Halaber, prestigio sozial aldetik, kanpotik datozenen begietan ere beste kolore bat hartu du; askoren lan handiari esker, neurri batean, merezi duen hizkuntza bihurtzera heldu da.

**Espainiako gerraz geroztik gertatutakoak kontatzen ditu ikerketak, ezagunak nahiz ez-kutukoak.**

Bai. Garai hura bizi izan zutenak edo garai hura familian kontatuta jaso izan dutenak elkarrizketa izan da nire lana; denera, 20 elkarrizketa egin ditut. Oreka bilatzen saiatu naiz, horrelakoetan oso erraza izaten baita gizonez osatutako zerrenda bat topatzea. Jende arruntagoa elkarrizkatzeko ere saiatu naiz. Esaterako, nire amonaren ahizpa, Urkizuko Karmen, eta Bernardo Atxaga bera elkarrizketatu ditut. Bakoi-tzak bere arrazoiak zituen. Kar-

menek oso ikuspegi polita eman zidan; Bernardo Atxagak, berriz, *master class* bat.

Historia bat aukeratzekotan, Albizturren kokatutako bat aukeratu nuke, besteak beste, gerra aurretik bertan bizi izan zelako ezagun egin zen olerkari bat, Emiliano Mujika Laskibar. Gerra heldu zenean bere produkzio guztia eten zuen; ez zuen olerkirik argitaratzerik izan, bai beldurratik, baita autozentsuragatik ere. 1949an hil ondoren, ia inor ez zen berarekin gogora-

**Euskara modernizatu egin da; hain natural egiten zaigun batua oso egonkor dago orain, duela 50 urte ez bezala**

tzen. Bada, bere biloba Xabier Bengoetxea elkarrizketatu dut. Albizturko etxea saldu zutenean, altzairu batetik argitaratu gabeko poemak atera zituztela kontatu zidan. Gisa horretako gertakariak edota historia zatiak berreskuratzen ari naiz, eta tartean badira bitxikeriak eta sorpresa politak. Anekdotak bat izan daiteke, baina kontatzen asmatuz gero, anekdota hori zerbaiten sinbolo izaten da.

**Bihar, ikerketaren lehen zatia aurkeztuko duzu. Zer dela eta egingo duzu zatika?**

Gaia bera hain zabala izanik, denboran zatitzea erabaki genuen. Lehena, 36ko gerratik gaur egunera artekoa da. Bigarrena, 1833tik 1936ra bitartekoa, gerrateen eta modernizazio prozesuaren garaia. Eta hirugarrena, 1833tik atzerakoa. Bi fase horiek hurrengo urteetan landu eta aurkeztuko ditut.

Ikerketa historikoak atzetik aurrera egiten diren arren, historian hurbilen dugunetik hasi nintzen, batez ere, horri buruz hitz egin dezaketen protagonista asko oraindik bizirik daudelako. Liburuez gain, garrantzia handia eman diegu elkarrizketei, testigantzak jasotzeari eta gerora etorri daitezkeen beste ikerketentzako materiala sortzeari.

**Gerora, zertarako balio dezake ikerketak?**

Horrelako ikerketek, istorio esanguratsuak edo lezio interesgarriak bildu ditzakete, bai hizkuntzari begira, baita gizarteari orokortasunetik begira ere. Bilduko dugun material guztia zabalteko, interpretatzeko eta eskuragarri jartzeko formulak bilatu nahi ditugu. Argitalpen forma eman nahi diogu, baina hortik kanpora ere, eskoletara eramanez nahi dugu, hezkuntzarako irakaspenak bildu ditzakegulako.

## Euskal Herriko historiari buruzko saioak, Fernando Rojoren eskutik

70 pertsonak eman dute izena, eta horregatik, bi hilabetez luzatu dute ikastaroa; Tolosako Lizardi elkartearen eskainiko du

**J. Artutxa Dorronsoro** Tolosa

Ostegunetik aurrera, Euskal Herriko historiari buruzko ikastaroa eskainiko du Fernando Rojo historialari tolosarrak, Lizardi elkartearen. Hasiera batean, abenduko hiru ostegunetan (2an, 9an eta 16an) zeuden aurreikusita saioak, 18:00etatik 20:00etara. Hala ere, aitortu dutenez, «arrakasta» izan du, eta 70 pertsonak eman dute izena. «Genituen aurreikuspen guztiak gainditu dira». Ondorioz, parte hartuko dutenak bi multzotan banatu dituzte, eta urtarileko beste hiru ostegunetan ikastaro bera eskainiko die Rojok gainerakoei.

Historia politikoari buruzko saioak izango direla aurreratu du. «Historia irakasteko modu asko daude, baina kasu honetan, interesgarriena izan daitekeenari buruz hitz egitea erabaki dut. Azken 40-50 urteetako historia nahikoa ezaguna da; askori gainera, garai hori bizitzea egokitu zaie. Hortaz, historia aurretik hasi eta frankismoaren amaierara bitarteko garaietan zer eta nola gertatu zen azalduko dut».

Tolosarraren ustez, gizarteak, oro har, «oso gutxi» ezagutzen du gure herriaren historia. «Ezagutza ez da oso sakona; asko irakasten da Espainiako, Europako edota munduko historiaz, baina ia batere ez hemengoaz». Hori dela eta, «oso gustuko du» horrelako saioetan izaten den aniztasuna. «Asko dakitenak egongo dira, baina baita ia ezer ez dakitenak ere. Horregatik, ez da erraza izango irakatsi beharrekoa neurteza, zenbat sakondu jakitea alegia», nabarmendu du.

Ikastaroan parte hartuko duten herritarrek asko ikasteaz gain, «edukiarekin gozatzea» nahi du Rojok. «Zalantzaren bat edo gai baten inguruko interesa izanez gero, egin ditzatela galderak lasai, bakoitzak adierazi dezala bere iritzia, amaierara arte itxaron gabe». Guztien arteko solasaldiak osatu nahi ditu, «horrela, arinagoak izango baitira saioak».

## 233 positibo antzeman dituzte azkeneko astean

### Erredakzioa

Osasun Sailak emandako datuen arabera, eskualdean azaroaren 22etik 28ra 233 positibo egon dira. Araba, Bizkai eta Gipuzkoan 6.335 izan dira, eta intzidentzia metatuaren tasa 471,56koa da. Ospitaleetan 214 pertsona daude egun COVID-19arekin eta 47 ZIUn. Hemezortzi dira azken astean hil diren herritarrak. Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburu Gotzone Sagarduik nabarmendu du egoera «arduratzeko modukoa» dela, eta esan du balitekeela ZIUetan 50 gaixo egon baino lehen larrialdi egoera ezartzea. Irarri dutenez, Osakidetza zentro guztiak Osakidetza Kontingentzia Planaren bigarren egoerara igaroko dira.

Azkeneko astean Tolosan 109, Anoeta eta Ibarra 27na, Amasa-Villabonan 17, Zizurkilan 15, Lizartzan 8, Alegian 7, Asteasu eta Altzon 4na, Ikaztegieta eta Oresan 3na, Albiztur, Amezketeta Iruran bina eta Baliarrain, Berastegi eta Bidania-Goiatzen bana izan dira. Tolosaldean 28 positibo atzeman zituzten atzo: Tolosan 16, Anoetan 6, Amasa-Villabonan 3, Ibarra bi eta bakarra Alegian.

## Zizurkilgo Udalak asteburu etako gertakariak salatuz oharra kaleratu du

Bando baten bidez Zizurkilgo Udalak azken hilabeteotako asteburu etako gertakariak salatuz oharra kaleratu du. Aipatu duenez, bizilagunen deskantsua oztopatu eta txikizkoak eragin dituzte Joxe Arregi plazako estalpea bilgune bezala hartu duten hainbat gazte taldek. Festa «zentzuz» egiteko eskaria luzatu du eta babesa adierazi die Elbarrena erdiguneko bizilagunei.

Pandemiaren inguruko neurriak arintzen hasi zirenean, eta oraindik tabernak gauez itxita zeudela, hainbat gazte taldek Joxe Arregi plazako estalpea bilgune gisa erabiltzen hasi zirela aipatu du udalak. «Itxialdi luzearen ostean, ulergarria da elkartzeko gogoia izatea, baina berehala hasi ziren arazoak: goizaldera arte euren ekarritako bafleekin musika jarri eta herri altzarien lehen txiki-

Tolosaldeko 17 udalerrri daude 150eko tasatik gora. Horien artean, nabarmentzekoa dira Anoeta (2.167), Lizartza (1.386) eta Oresako (2.830) datuak. 5.000 biztanle-tik gorako herrien kasuan, Tolosak 1.051eko intzidentzia tasa du, eta Amasa-Villabonak 608koa. Osasun eremuei dagokionez, Alegiako (580), Ibarriko (943), Tolosako (979) eta Villabonako (814) gorrian daude. Baita, Tolosaldeko ESla (1.049) ere.

### MOZANBIKETIK IRTEN EZINDA

Alegian bizi den Asier Zabaleta dantzaria eta Marian Gerrikabeitia kazetaria Mozanbiketik irten ezinda dabilta. Omikron aldaera dela eta mugak itxi dituzte hainbat herrialdek, eta atzo zuten hegaldia bertan behera geratu zen, gutxienez, abenduaren 15era arte.

«Espainiako kotsulatuak deitu zigun esateko aireportura korrika joan eta edozein hegaldi hartu behar genuela; bi saiakera egin eta ez genuen lortu, ordea», esan du Zabaletak Maputotik, Mozambiqueko hiriburutik. Espainiako Gobernuari presio egin nahi diote eurentzako eta euren moduan dauden beste 50 pertsona ingururantzako hegazkin bat ipin dezan.

zioak eman ziren». Udalak esan du, geroztik, asteburu ugaritan galarazi zaiela bizilagunei deskantsua eta kalteak eragin direla herrian: «Herri altzariak hondatu, etxebizitzetara gauzak jaurti, kaleetako 20 seinale baino gehiago hautsi, argindar koadroaren atea ere behin baino gehiagotan leher-tu dute horrek dakarren arriskua-ekin...».

Eragile ezberdinekin harremanetan dago udala gertatzen ari dena aztertzeko. «Herri txikia gara, Zizurkilgo Udalak ez du bitartekorik larunbat gauetan gertatzen dena kontrolatzeko. Baina, herri txikia izateak ez du esan nahi edozer gauza onartu behar dugunik». Bandoan aipatu du ulertzen eta babesten duela elkartzeko eta ondo pasatzeko gogoia izatea, «baina inola ere ez bizilagunak jasaten ari direna eta txiki-zio ulertezin hau».



Joan den ostegunean Tolosako Zerkausion hainbat eragilek elkarrekin egin zuten agerraldia. I. T.

# Hainbat eragilek bat egin dute sindikatuen mobilizazio egunarekin

## Abenduaren 1erako deitu dituzten mobilizazioekin bat egin dute Tolosaldeko Asanblada Feministak, Topak, Tolosaldeko Pentsiodunen Mugimenduak eta Ernaik

### Iñigo Terradillos Tolosa

ELA, LAB, Steilas, ESK, Etxalde, Hiru, CGT eta CNT sindikatuek mobilizazio eguna deitu dute *Lan, pentsio eta bizi baldintza duinen alde. Lan eta pentsio erreformei ez. Bizi duin baterako burujabetza* lelopean, abenduaren 1erako. Goizean, kalera irtengo dira Hego Euskal Herriko lau hiriburu eta arratsaldean berdin egingo dute eskualdeetan. Tolosaldeari dagokionez, Tolosan egingo dute mobilizazioa, Trianguloan, 19:00etan hasita. Tolosaldeko Asanblada Feministak, Topak, Tolosaldeko Pentsiodunen Mugimenduak eta Ernaik egin dute bat sindikatuen deialdiarekin.

Deitzaileek esan dutenez, «garrantzi handiko» unea da. «Europar funtsak Damoklesen ezpata bilakatzen ari dira, eta hori inola ere ezin dugu onartu. Hasieratik argi geratu zen funtsen truke doikuntza sozialeko neurriak eta austeritatezko aurrekontu-politikak eskatuko zizkigutela». Hala, euren ustez, urte bukaerarako hartu nahi dituzten erabakien arabera izango dira

etorkizuneko gure bizi eta lan baldintzak. «Lan erreforma eta pentsioen erreforma ezinbesteko baldintza dira beltzez jantzitako gizon berriek argi berdea eman diezaioten espainiar estatuturako funtsen transferentziaren bigarren zatiari. Eta ez batean, ez bestean, inongo kasutan ez zaio erantzunik ematen Euskal Herriko mugimendu sindikal eta sozialen eskariei».

Pentsioen inguruan, horien erreformarako lege-proiektua izan dute hizpide. «Erretiro aurreratuan murrizketak ezarri nahi dituzte, eta ez da inola ere bermatzen 1.080 euroko gutxieneko pentsiorik, ez eta genero arrakala gaintzen ere». Lan erreformari buruz, horien nondik norakoak «are ilunagoak» direla diote, eta «ez dirudi Euskal Herriaren gure lan-hitzarmenak negoziatzeko eskubidea bertatuko denik, edota indargabetuko direnik aurreko erreformen funtsezko puntuak, esaterako kaleratzeko erraztasuna». Erreforma horiek baldintzatu nahi dituztela esan dute, eta mobilizazioa da horretarako hautatu duten bidea.

Bestalde, mobilizazioak deitu dituzten sindikatuen arabera, «Hego Euskal Herriko erakundeek ez dute ezer jakin nahi ereduaren oinarriko zutabeak aldatzeko aukeraz, esaterako, osasun, hezkuntza edo zaintza sistema publikoari dagokionez, edo premiazko erreforma fiskalari ekiteaz, zeinak zeharo gehituko dituen enpresa- eta kapital-errentek ordaintzen dituzten zergak, batik bat enpresen etekinek, ondareak eta fortuna handiek. Confesbaskek eta CENek erabakitzen dituzte politika hauek».

«Aurrekontu-politika zeken jarraipenak, zerbitzu publikoen pribatizazioaren aldeko politikak eta gizarte prestazioak areago murriztu nahiak, krisian dagoen tokiko merkataritza babesteko neurriak ezak...». Horrek guztiak 2008ko krisialdian eta koronabirusaren pandemian zehar ikasitakoa ez dutela aintzat hartu nahi adierazten duela diote. «Krisi sanitarioaren kudeaketak agerian utzi du sistema autonomikoa zein hauskorra den: nahi duenean, estatuak bere irizpideak inposatzeko ahalmena du».



## KORAPILOAK ETETEKO

Aurten ere, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunean Euskal Herriko Mugimendu Feminista kalera atera da, eta eskualdean ere kaleak bete dituzte —goian Aiztondo mai-lako manifestazioa, erdian Tolosan eginiko ekitaldia eta behean Berastegi—. Matxismoak, arrazakeriak eta klasismoak sistema kapitalistan «korapilo bat ehundu» dutela adierazi zuten: «Guztiak etetea da beharrezkoa. Matxismoa ez da desagertuko, jendarte honek bere izate eta aldaera guztiak gaitzesten dituen akordio sozial bat adosten ez duen arte». J.M./



Xabat Laborde eta Beatriz Unzueta herri galdeketa emaitzak ematen, herenegun. LEYRE CARRASCO

# Bolatokia estaltzea eta padel pistak eraikitzea aukeratu dute

1.033 pertsonak parte hartu dute galdeketa, herritarren %20,8, eta udalak balantze baikorra egin du; 2022. urtean proiektu irabazlea gauzatzeko konpromisoa hartu du

**Leyre Carrasco**  
Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udaleko Herritarren Parte Hartze Batzorde bereziak martxan jarritako parte hartze prozesua amaierara iritsi da, azaroaren 19an hasi eta herenegun bukatu zen herri galdeketaekin. Hamaika proiektuen artean puntu gehien lortu dituen Olaederra kiroldegiko bolatokia estaltzea, padel pistak eta erabilera anitzeko espazioa eraikitzea izan da, 1.221 punturekin. Datozen egunetan proiektu hau proposatu zuen herritarrekin harremanetan jarriko dela jakinarazi du udalak, eman beharrezko pausoak adosteko, eta 2022. urtean proiektua eraikitzen hasteko konpromisoa hartu du.

Proiektu honen aurrekontua 396.590 eurokoa izanik, ezin izango da beste proiekturik egin, Udalak parte hartze prozesu honetarako ezarritako aurrekontua 400.000 eurokoa izan baita. Hala ere, gainontzeko proiektuek lortutako babes etorkizun baterako kontuan izango dutela

jakinarazi du Xabat Laborde alkateordeak: «Hasieran esan genuen bezala, proiektua garaile ez izateak ez du esan nahi proiektu hori sekula egingo ez denik. Prozesu honen emaitza Olaederrako bolatokia estaltzea, padel pistak eta erabilera anitzeko espazioa eraikitzea izan da, baina galdeketa honetan ere badaude beste hainbat proiektu babes zabala lortu dutenak, eta udal bezala kontuan hartuak izango dira. Nahiz eta lehen fasean ezin izango dugun 2022. urtean egiteko konpromisoa hartu, galdeketa honek ere beste hainbat informazio ematen digu. Adibidez, ikusten da Txermingo aparkalekua erabiltzearen beharrak ere mobilizatu duela herritar ugari, puntu asko lortu dituen proiektua izan baita. Beraz, guk ere hori kontuan hartuko dugu, aurretanzean heldu beharrezko gaitz bat dela iruditzen baitzaigu».

### PARTE HARTZE <<ZABALA>>

Horrez gain, lortutako parte hartze «zabala» azpimarratu du Amasa-Villabonako Udalak. Guztira 1.033 izan dira beren

bozka eman duten herritarrek, 16 urtetik gorako errolatuen %20,8, hain zuzen. Horregatik, Udalak balantze «oso positiboa» egin du: «horrelako parte hartze prozesu batean 1.000 herritar baino gehiagok parte hartzea ez da zifra makala, batez ere aste-buruan izan dugun eguraldi makurra kontuan izanda». Telematikoki bozkatzeko sistemak behar bezala funtzionatzeaz gain, bozketa presentziala ere espero bezala garatu dela ere aipatu dute.

Udaletik «poztasuna» adierazi dute, parte hartze prozesu honen hasieran ezarritako helburuak bete direlako eta Amasa-Villabonan inoiz egin den parte hartze ariketa handiena garatu dutelako: «Prozesu hau mugari oso garrantzitsua izango da zailtzarrik gabe, eta galdeketa emaitzaz harago, herria izan da garailea».

Aste honetan, Udaleko Herritarren Parte Hartze Batzorde bereziaren bilkura izango da prozesuaren balantze sakonago bat egiteko, alderdi politikoetako ordezkariekin batera.

zozketak

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu

'Gure bertso zirkua' helduentzako saiorako 2 sarrera.

Larunbata, abenduak 11, 18:00h.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo [www.ataria.eus](http://www.ataria.eus)

# Iribarrez hartu dituzte Kilometroak ibartarrek

Ostiral iluntzean egin zuten 2022ko Kilometroak jaiaren aurkezpen ekitaldia; 'Iribarra' leloa eta bere logoa aurkeztu zituzten herritarren aurrean

## Irati Saizar Artola

Ikasle, irakasle, herritar, bizilagun eta talde askok hartu zuten parte Ibarako Belabieta kiroldegian ostiral arratsaldean egin zen aurkezpen jaialdian. Ekitaldia Bittori Olaetxea irakasle izandakoaren bideo proiektio batekin hasi zen. Kontatu zuen bera irakasle zela 19 ikasleekin hasi zela eskolak ematen eliza ondoko lokalean, eta geroztik batu zirela haur eta irakasle gehiago. Gaur egun, 500 ikasle inguruk eta 73 langilek osatzen dute Uzturpe ikastola.

Maite Artola kazetari eta ikasle ohia aritu zen saioa gidatzen, eta hitz hauek bildu zituen Uzturpe ikastolaren inguruan aritzeko: «Hazirik erein gabe nekez bildu daiteke uzta». Izan ere, eskolako ikasle eta irakasleek antzerki bat eskaini zuten, eta bueltan-bueltan, mezu horixe izan zen zabaldu zutena; hazi bat ereinda, kasu honetan Ibarako piperraren hazia, jaiotzen den landareak, pipe-

rez gain, asko duela erakusteko, askorako ematen duela.

Antzerkiaren gain, musikak eta dantzak ez zuten hutsik egin. Ibarako koroak, Eneritz Jauregi bakarlariak, Alurr dantza taldeak eta Numen dantza eskolak, eta herriko hainbat musikariek hartu zuten parte ikuskizunean, besteak beste, Jon Garmendia, Aritz Sudupe, Jon Urrestarazu, Josu Gabellanes, Hodei Yañez, Enrike Rubiños eta Xabi Malbadi musikariek. Eskertzen zerrenda horretan, gogoan izan zituzten ekitaldia antolatzen lagundu duten Ibarlur, Txumitxa eta Zubelzu piperren enpresak.

Aurkezpenean zehar, 2022ko Kilometroetako leloaren eta logoen berri eman zuten. *Iribarra* izango da Kilometroen goiburua. «Ezin hobe hautatutako leloa, irribarra hain garesti dagoen honetan», esan zuen Artolak. «*Iribarra* komunitatea sortzen jarraitzeko, *irribarra* bizilagunekin, *irribarra* euskal kultura partekatzeko eta besteena geurera

ekartzeko, *irribarra* berrikuntzaren grina ere badelako», esan zuen Maite Artolak.

Ibarako kasuan, Kilometroetan bildutako dirua Uzturpe ikastolako jolastoki berria egiteko erabili nahi dute. Eta horixe galdetu zien Artola kazetariak oholtzara igo ziren Uzturpeko ikasleei ere, ea zer nahiko luketen aurkitzea ikastolako patioan. Denetariko erantzunak jaso zituzten, eta aurrerago erabakiko dute nolako jolastokia egin.

## DENDA ZABALIK

Besteak beste, gogorazi zuten, aurrerantzean zabalik egongo dela Kilometroetako denda, Euskal Herria kalean, lehen Comercial San Bartolome denda zegoen lekuan. Eta bertan izango dira eskuragai Kilometroetako arropa eta banderolak, besteak beste. Banderolak erosi eta etxeetako balkoietan jartzeko gonbidapena egin zuten, «*Iribarraraz* jantzi beharko ditugulako Ibarako kaleak».



Maite Artola kazetariak solasaldia egin zuen Uzturpeko ikasleekin. I.S.A.



Antzerkia egin zuten Uzturpeko ikasle eta irakasleek. I.S.A.



Musikaz gozatzeko aukera izan zen ekitaldian. I.S.A.



**ANOETA - 28 ETXEBIZITZA**  
2 ETA 3 LOGELA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK  
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK

**CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L.**

Informazioa:  
KALE BERRIA 48, BEHEA  
20.150 VILLABONA

[www.aburuza.com/iturtxulo](http://www.aburuza.com/iturtxulo)  
komertziala@aburuza.com  
943 69 02 97/607 445 484

## KIROL EMAITZAK

## Areto futbola

## BIGARREN B MAILA

## 11. jardunaldia

Lauburu - Tafa  
(bertan behera)

## Saillapena

1. Tafa 27p  
12. Lauburu Ibarra 12p

## Hurrengo jardunaldia

Esc. Ciu. Guadalajara (13)  
Lauburu (12)

## HIRUGARREN MAILA

## 11. jardunaldia

Laskorain 4  
Lagun Onak 2  
Almi Elorrietako 2  
Tolosala 3

## Hurrengo jardunaldia

Gernikako Lagunak Xaibor (3)  
Laskorain (2)  
Tolosala (8) *atsedenaldia*

## SENIOR MAILA

Hurrengo jardunaldia  
abenduaren 12ko asteburuan

## Eskubaloia

## 1. MAILA NAZIONALA

## 10. jardunaldia

Tolosala Eskubaloia 31  
Helvetia Anaitasuna 31

## Saillapena

1. Arrate Eibar Eskubaloia 19p  
8. Tolosa CF Eskubaloia 11p

## Hurrengo jardunaldia

Barakaldo (14)  
Tolosala Eskubaloia (8)

## 1. LURRALDE TXAPELKETA

## 8. jardunaldia

Arrate Eibar Eskubaloia  
Tolosala Eskubaloia  
Atzeratuta

## Saillapena

4. Tolosa CF Eskubaloia 12p

## Hurrengo jardunaldia

Arlan Elgoibar (3)  
Tolosala Eskubaloia (4)

## Futbola

## HIRUGARREN MAILA

## 15. jardunaldia

Amurrio 0  
Tolosala CF 2

## Saillapena

1. Alaves B 31p  
19. Aurrera 13p  
20. Tolosa CF 12p

## Hurrengo jardunaldia

Tolosala CF (20) - Vitoria (5)

## 1. MAILA NAZIONALA

## 11. jardunaldia

Tolosala CF - Real Sociedad B  
Bertan behera

## Saillapena

1. Bizkerre 28p  
10. Aurrera de Vitoria 12p  
11. Tolosa CF 11p

## Hurrengo jardunaldia

Athletic Club C (3)  
Tolosala CF (11)

## ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

## 11. jardunaldia

Tolosala CF 1  
Oiartzun 3

## Hurrengo jardunaldia

Leintz Arizmendi (8)  
Tolosala CF (12)

## GORENGO MAILA EMAKUMEAK

## 11. jardunaldia

Euskaduna 5  
Intxurre 0

## GORENGO MAILA GIZONAK

## 12. jardunaldia

Getariako 3  
Danena 1  
Tolosala CF 3  
Billabona 2

## Hurrengo jardunaldia

Danena (9)  
Tolosala CF (3)  
Billabona (10)  
Astigarragako Mundarro (5)

## LEHEN MAILA ERREGIONALA

## 11. jardunaldia

Atotxa River 2  
Intxurre 2

## Saskibaloia

## GIZONEZKOEN LEHEN MAILA

## 6. jardunaldia

Tecnun-Askatuak 86  
Redline Mekanika TAKE 81

## Hurrengo jardunaldia

Redline Mekanika TAKE (1)  
Atsedena

## EMAKUMEZKOEN LEHEN MAILA

## 7. jardunaldia

Ostadar 39  
TAKE 42

## Hurrengo jardunaldia

TAKE (3)  
Atsedena

## Hodei Ezpeletak jantzi du aizkorako Euskal Herriko txapela

Aizkolari eibartar gazteak 44.40ko denbora behar izan du lanak bukatzeko; Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatuako finalean Xabier Zaldia izan zen bigarrena



Sari banaketan aizkolariak zein federazioko eta Tolosako Udaleko ordezkariak izan ziren. LEYRE CARRASCO

## Leyre Carrasco Tolosa

Lehen Mailako Euskal Herriko Aizkolari Txapelketak badu txapelkun berria: Hodei Ezpeleta. Eibartarrak bere aurreneko finala irabazi du 22 urterekin. Tolosako Beotibar pilotalekuan igande eguerdian jokatu zen finalean, Luis Mari Txapartegi, Xabier Zaldia, Oier Kañameres, Iban Resano eta Jose Antonio Etxeberriaren aurka aritu zen lehian, baino inor ez zen gai izan Ezpeletari aurre egiteko. Hasieratik bukaerara arte izan zen lehena, erritmoa hasieratik hartu baitzuen, eta azkenean, 44.40ko denborarekin amaitu zituen lanak: lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta lau oinbiko.

«Hunkituta» eta «ilusionatuta» bukatu zuela adierazi zuen irabazleak, bere lehen finala izan baitzen: «Nire lehenengo finala izan da, eta txikitatik amestu dudana, gainera. Mentalizatuta egon naiz, prestaketa onak egin da eta aizkorarekin gozatu dut». Arazo txikik ere izan zituen tartean; hala nola, aizkora puskatu edota adar pare bat tokatu zi-



Sei finalistak esfortzu betean, Beotibar pilotalekuan. LEYRE CARRASCO

tzaizkion eibartarrari. Hala ere, Zaldia ez zen gai izan Ezpeletari aurre egiteko, eta 46.17ko denborarekin amaitu zituen zumarragarrak bere lanak.

Hirugarren postua Jose Antonio Etxeberriarentzat izan zen, 47.30ko denborarekin bukatuz. Atzetik izan zuen Oier Kañameres, eta 48.49 denborarekin eskuratu zuen laugarren postu hori. Bosgarren postuan, berriz, Iban Resano geratu zen 51.30rekin, eta amorerik eman gabe, sei-

garren postua Luis Mari Txapartegirentzat izan zen, 53.27 eginez.

## EMAKUMEZKOETAN, SORONDO

Laiene Pikabea, Nerea Sorondo eta Maika Aristegik eman zioten hasiera txapelketari. Kanaerdikoa lehendabizi mozten zuena bilakatzen zen irabazle, eta Sorondo izan zen hori lortu zuena. Aizkolari nafarrak atzetik izan zuen Pikabea, eta hirugarren geratu zen Aristegi.

# Etzi hasiko da IX. Antton Pebet Oroimenezkoa


Elite mailako eskuz binakako lehia final-zortzirenekin hasiko da eta finala urtarrilaren 2an izango da; etzi eta ostiralean bina partida jokatuko dira Bearzana frontoian

**Asier Imaz** Amasa-Villabona

Afizionatu mailako gizonezkoen pilota partidez gozatzeko aukera izango da beste behin Villabona-ko Bearzana frontoian. Etzi hasiko da IX. Antton Pebet Oroimenezko txapelketa, final-zortzirenekin, eta pilotari onenari ariko dira lehian. Binaka jokatuko dute eta guztira hamabi bikotek hartuko dute parte txapelketan.

Lehen jardunaldian, abenduaren 2an, bi partida izango dira jokoan. Lehenengoan Murua-Aizpuru eta Etxezarreta-Aranguren lehiatuko dira, eta bigarrenengoan Exposito-Elizegi eta Azketa-Altuzarra. Ostiralean, abenduak 3, beste bi partida: Xabier Urbietia-Alduntzin eta Igoa-Arbizu lehenengoan, eta Eneko Labaka-Etxeberria eta Mata-Lizeaga bigarrenengoan.

Irabazleek aurrera egingo dute, eta euren zain egon dira beste lau bikote final-laurdentan, abenduaren 10ean eta 11n jokatuko direnak. Abenduak 2ko lehen partidako irabazleek Landa-Urruzola izango dituzte zain, eta bigarren partidako irabazleek Elola-Aldave. Abenduak 3ko lehen partidako irabazleek U. Alberdi-Garmendia bikoaren aurka jokatuko beharko dute, eta



Orain bi urte jokatzen zuten azkeneko finaleko une bat. I. LIZASO

bigarren partidako irabazleek aurkariak Espinal-Balardi izango dira.

Finalerdiak abenduaren 17an, ostiralean, jokatuko dituzte, eta finala urtarrilaren 2an, igandean, izango da.

Txapelketaren helburuak Antton Pebet Behar Zanako pilotari ohia gogoan izatea eta pilota sustatzea direla azaldu dute Behar Zana elkartetik. «Gure lana oinarria lantzea da, txikitatik neskak eta mutilak pilotan aritzea, eta modalitate ezberdinetan. Hortik aparte, garrantzitsua iruditzen zaigu horrelako txapelketak ere antolatzea, besteak beste, pilotari onenak herrira ekarriz», azal-

du du Iñaki Lizaso Behar Zanakokideak.

## BARRIKOTEA

Behar Zana elkarteak 75. urteurrena ospatuko du 2022an eta giroa pixka bat berotzeko barrikotea antolatzea pentsatu dute. Abenduaren 11n izango da, 14:30ean, Behar Zana elkartearen. Menuan, sagardoa barrikotean, txorizo pintxoak, bakailao tortilla, haragia saltsan, sagar pudina, kafea eta kopa izango dira, eta trikitilariak izango dira giroa alaitzeko. Txartelak 25 euro balio du eta Txurrut tabernan, Iru Aldeta tabernan eta Behar Zana elkartearen erosi daitezke.

# Aspeko derbiaren zain, Baikoko biek galdu egin dute

## Erredakzioa

Ez da albiste onekin hasi Binakako Pilota Txapelketako bigarren jardunaldia. Aurreko astean derbia jokatuz zuten Baikoko eskualdeko bi pilotariak oraingoan enpresako beste bi bikoteraren aurka zuten norgehiagoka. Bai Jakak eta bai Peña II.ak euren partidak galdu zituzten. Peña II-Albisu bikotek 22-11 galdu zuen Laso-Imaz bikoaren aurka, eta Jaka-Mariez-kurrena II bikoteak 22-20 Urrutikoetxea-Aranguren bikoaren aurka. Gaur jokatuko da Altuna III-Martija eta Ezkurdia-Tolosa arteko partida, Eibarren.

Jakak eta Mariezkurrena II.ak bikote indartsua osatzen dute, baina lehen bi partidak galdu dituzte. Pasa berri den asteburuko Urrutikoetxea eta Aranguren aurkako, teoriarik ahulagoa den biko. Hori bai, bi tantogatik bakarrik galdu zuten. Hurrengo asteburuan Laso-Imaz biko izango dute aurkari.

Peña II.a eta Albisu aurreko txapelketako txapeldunordeak

dira, baina lehen partida irabazi ondoren, bigarrenengoan ez ziren batere fin aritu. Denen ahotan dagoen Laso izan zuten aurkari, lehen tantoetan berdinduta izan zen partida puskatu zuena bere jokoarekin. Datorren partidaren Urrutikoetxea-Aranguren izango dira Peña II-Albisu bikoaren aurkariak.

Gaur Altuna III.ak eta Tolosak lehen puntua eskuratzeko aukera izango dute, lehen jardunaldiko partidak galdu ostean. Eibarren jokatuko dute elkarren aurka, Altuna III.ak Martija duela atzean eta Tolosak Ezkurdia duela aurrean, 17:00etan hasiko den jaialdiaren bigarren partidaren.

Promozio mailako txapelketan Elizegik bere bigarren puntua eskuratu du. Bakaikoarekin batera 22-17 irabazi zioten Alberdi-Uriondo bikoari. Elizegik etxean jokatuz zuten, Asteasuko Usarrabi frontoian, eta sailkapeneko buru daude bera eta Bakaikoa, jokatutako bi partidak irabazita.

## Lauko mistoak ezin izan du parte hartu

**IBARRA** // Asteburuan Ibarra Sotakira Taldeko lau mistoak Euskal Herriko Txapelketan parte hartu behar zuten, baina ez zen posible izan. Mutilen taldeko batek positibo eman zuen eta aurreko astean entrenatzen izan zenez, mutilak kontaktu zuzentzat jotzen ziren eta ezin izan zuten parte hartu txapelketan.

## Larrarte, Master txapelketatik kanpo

**BIDANIA-GOITATZ** // Mire Larrarte pilotari bidaniarrak ez du aurrera egin pilota mistoarekin jokatutako Master Laboral Kutxako lau eta erdiko txapelketatik. Urduñan jokatuz zuten asteburuan Olatz Arrizabalagaren aurka eta 7-18 galdu zuen. 3-17 jarri zen aurretik Arrizabalaga eta horri buelta ematea oso zaila izan zen.

Hilberriak eta urteurrenak

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

**ataria** jarrita  
Urola Kostako  
eta Goierriko  
Hitzetan DOAN

**Eskelak orain merkeago!**

TXIKIA (82mm X 64mm): 110€ • Harpidedunentzat 55 €  
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €  
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €  
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenean asteazkenean 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



**Miren Osa Etxeberria**



Hire lagunak eta kideak  
Besarkada bat

**Komando atsuk**

ZARAUTZEN, 2021eko azaroaren 30ean



**ASTEARTEA, 2021EKO AZAROAK 30**  
**Argitaratzailea:**  
 Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM  
**Lege Gordailua:** SS-1323-2013  
**Koordinatzailea:** Rebeca Calvo Gonzalez  
**Kudeatzailea:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe  
**Egoitza:** San Esteban, 20, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95.  
**E-posta:** ataria@ataria.eus  
**Publizitatea:** 661678 818. publi@ataria.eus

**Tolosa:** 687 410 082. tolosa@ataria.eus  
**Villabona-Aiztondo:** 687 410 022.  
 villabona-aiztondo@ataria.eus  
**Anoetalea:** 687 410 022.  
 anoetalea@ataria.eus  
**Ibarralea:** 687 410 118. ibarralea@ataria.eus  
**Alegialdea:** 687 410 034.  
 alegialdea@ataria.eus  
**Kirolak:** 673 06 1132. kirolak@ataria.eus  
**Bezero arreta zerbitzua:** 943 30 43 46



**Ataria.eus** **ATARIA IRRATIA**  
**107.6 FM**

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:  
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:  
 Tolosaldeko gizarte eragileak

galtzaundi Txolénre berria BERTAKO HEDABIDEAK

Tolosaldea Sahararekin elkarrekin elkarrekin errefuxiatuen kanpalekuetara eramango du bildutako materiala, datorren astean egingo duen bidaiari; 'Ataria' bidaiaren lekuko izango da

# Saharar kanpalekuetara

**Erredakzioa** Tolosa

**E**rironka garrantzitsua du Tolosaldea Sahararekin elkarrekin aurretik. Pandemiak sortutako egoera dela eta, azken bi urteetan ezin izan dute saharar iheslarien Tindufeko kanpalekuetara bidaiatu, eta Oporrak Bakean ekimena bertan behera utzi behar izan dute ere. Lehorraldia bukatu da ordea. Denbora honetan guztian bildutako materiala eraman ahal izango dute Saharako errefuxiatuen kanpalekuetara eta TOLOSALDEKO ATARIA bertan izango da.

Irati Saizar Artola kazetariak Tolosaldea Sahararekin elkarrekin kideekin bidaiatuko du kanpalekuetara eta bertatik bertara kontatu ahal izango du bidaiak ematen duen guztia. Tolosako Udalak babestu du bidaiari eta ATARIA-ko euskarrietan jarraitu ahal izango da; Ataria Irratian, egunkarian eta *Ataria.eus* webgunean.

Pasa den ostiralean material guztia bildu zuten Maiatzak 20 elkarrekin furgonetan eta Usurbilgo mikrobusean, eta prest ditzute ere bertara eramango ditzuten ibilgailuak, tartean Adunako Udalak emandakoa.

Eli Eizagirre elkarrekin kideak adierazi du pandemiaren ondorioz, azken bi udaratan Saharako haur eta gazteak ezin izan direla



Pasa den ostiralean bildu zuten Tolosako elkarrekin zegoen materiala. L.CARRASCO

Euskal Herrira etorri eta ondorioz proiektu asko bertan behera utzi behar izan dituztela.

Datorren asteko bidaiari berri bat, ibilgailuz joango baitira errefuxiatuen kanpalekuetara. «Ibilgailuak elkartasunez beteta joango dira. Hori da orain txer bertan behar dutena. Desertuan, errefuxiatuen kanpalekuetan, egunerokotasunak monoto-

nia sortzen die eta faltan botatzen dituzte gure bisitak, batez ere egunerokotasun horretatik ateratzeko aukera ematen dietelako. Jada haiek badakite gu bagoazela, prestatzen ari dira, ez dute ezer berezia antolatuko baina nahikoa da buruko aktibazio hori sortzeko, asko laguntzen die horrek. Helburu hori ere badu gure bidaiari», esan du Eizagirre.

# ASTEARTEA 30

## AGENDA

### Deialdiak

**Alegia.** Argitu tailerra, kultur etxean, 18:30ean.  
**Bidania-Goiatz.** Indarkeriaren kontrako protokolo parte hartzailea, 18:00etan, Txinkorta eskolan.

### Erakusketak

**Alkiza.** Hitzak zaindari erakusketa ibiltaria Fagus Alkizan.  
**Anoeta.** *La busqueda: mujeres guatemaltecas que reclaman justicia*, liburutegian.  
**Berrobi.** Herria argazki erakusketa udaletxean.  
**Tolosa.** *Planeta lorategia. Planeta infernua*, Aranburu jauregian.  
**Tolosa.** Binilo diskoak eta txotxongi-loak, Topic-en.  
**Tolosa.** Paperezko antzerkia Topic-en.  
**Tolosa.** Mikel Garmendia Uranga, alegiararen pintura erakusketa.

## ATARIA IRRATIA

**09:00. Pasahitza.** Magazina.  
**15:00. Barnebidan.** Haritz Saez de Nanclesi elkarrekin reikiari buruz.  
**16:00. Zebrabidea.** Magazina.  
**20:00. Zer berri.** Tendentziak.

## 28 KANALA

**08:00.** 1, 2, 3 hemen da Miru!  
**11:30.** Gaurkoan Tolosaldeko  
**13:30.** Gaurkoan Tolosaldeko  
**19:00.** Elkarrekin topa  
**21:30.** Gaurkoan Tolosaldeko  
**22:00.** Xexili eguneko kontzertua

## FARMAZIAK

### Gaur

**IBARRA. Eguneko.** E. Mujika Martinez. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.  
**TOLOSA. Gaueko.** Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 51 18.

## EGURALDIA

### IKER IBARLUZEA

**Gaur.** Giro lasaia aspaldiko partez. Goizean zeruan hodeiak izango dira nagusi baina orokorrean ateri eutsiko dio. Eguerditik aurrera gainera, ostertak irekitzen joango dira eta giro nahiko eguzkitsua izango da arratsalde osoan. Haizea aldakor eta ahul ibiliko da eta tenperatura igo egingo da 11-12 graduan joz goia.

**Bihar.** Okerrera egingo du. Goizean jada erdi eta goimailako hodeiek zerua estaliko dute. Hala ere, ateri eutsiko dio. Eguerdian ordea fronte bat sartuko da, zerua oso estalita utziko du eta euritara joko du, non arratsalde erditik aurrera zaparrada mardulak izango diren, ekaitzak jotzea baztertu gabe. Haizeak goizean hego-mendebaldetik harro joko du. Eguerdian ipar-mendebaldera aldatuko da. Tenperatura jaitsi egingo da, 9-10 graduan joz goia. Elurra azken orduetan 1.000 metroan kokatuko da.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.



Usabal Auzoa, 25 TOLOSA

**EGUZKITZA**  
 sagardotegia



Abenduak 3tik aurrera zabalik!

Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko: TEL: 943672613